

**LABORAL KUTXA
BILBAO MENDITRAIL -
ARAUDIA**

2025EKO APIRILAK 6

20

25

AURKIBIDEA

01

DATA ETA LEKUA

02

MODALITATEAK ETA IBILBIDEAK

03

PARTE-HARTZEA

04

ARAUDIA ETA NAHITAEZKO MATERIALA

05

KATEGORIAK ETA SARIAK

06

IZEN-EMATEAK

07

EZEZTAPENAK ETA ITZULTZEAK

08

DORTSALEN BANAKETA

09

SEINALEZTAPENA

AURKIBIDEA

10

DENBORA-MOZKETAK

11

LASTERKETAREN KONTROLA ETA SAILKAPENA

12

INGURUNEA

13

OSASUN-LAGUNTZA

14

ISTRIPUETAKO ERANTZUKIZUNA

15

LASTERKARIAREN ASEGURUA

16

IRUDI-ESKUBIDEAK

17

BESTELAKOAK

01. DATA ETA LEKUA

LABORAL KUTXA BILBAO MENDITRAIL 2025eko apirilaren 6an, igandea, hiriburu bizkaitarraren ingurunean ospatuko da. Goizeko 8:00etatik aurrera irteera ezberdinak hasiko dira, hain zuzen ere, Bilbao Arenako zelaigunetik (Miribilla).

02. MODALITATEAK ETA IBILBIDEAK

Eraztun Berdea, Bolintxu eta Ganekogorta mendiguneetik igaroko da proba. Ibilbiderik luzeenaren kasuan, Bilboko eta inguruko zazpi gailur adierazgarrienetara igoko da (Arnotegi, Larrako, Pastorekorta, Pagasarri, Ganeta, Erreztaleku eta Gangoiti).

	MARTXA HERRIKOIA	TRAIL 12K	MENDI MARTXA - TRAIL 22K
DISTANTZIA	11,33 km	12 km	22,36 km
METRO POSITIBOAK	327 m+	605m+	1378 m+
HORNIDURAK	2 ibilbidean + 1 helmugan	2 ibilbidean + 1 helmugan	3 ibilbidean + 1 helmugan
TRACK			

03. PARTE-HARTZEA

Bi trail-ean zein mendi martxan 16 urte baino helduagoak diren pertsonak parte hartu ahal izango dute (2008ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoak). 18 urte beherakoek, ordea, aita, ama edo legezko tutorearen baimena aurkeztu beharko dute. Dokumentua **hemen** deskargatu dezakezu.

Martxa herrikoian, nahi duten pertsonak parte hartu ahal izango dute. 18 urte beherakoek, berriz, bere aita, ama, legezko tutore eta/edo arduraduna den pertsona heldu batekin parte hartu beharko dute. Guztiek izena ematea nahitaezkoa da bakarkako parte-hartze aseguruia izateko.

Bakarka parte hartu nahi izatekotan, 14 urte baino nagusiagoak direnek aita, ama edo legezko tutorearen baimena aurkeztu beharko dute. Dokumentua **hemen** deskargatu dezakezu.

Parte-hartzaile guztiek, izena emateagatik, araudia hau onartzen dute eta aipatutako guztia errespetatzeko eta zehaztutako baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen dute.



04. ARAUDIA ETA NAHITAEZKO MATERIALA

Araudia EMF/FVM mendiko lasterketen araudian zehazten dena da. Korrikalari bakoitzak proba, zirkuitua seinalezpena edozein dela ere eta bere arauak ezagutzeko erantzukizuna du.

Korrikalariak lehiaketaren araudia ezagutu eta errespetatu behar dute. Gainera, Lasterketa Batzordeak antolakuntzatik kanpo dauden arrazoiengatik egin ditzazkeen aldaketak onartu behar dira, lehiaketa aurretik edo ondoren.

Antolakuntzak ibilbidearen zatiren bat aldatu, desbideratu, moztu edo neutralizatzeko eskubidea du. Baita baldintza ezberdinen arabera beharrezkoak dituen aldaketak egiteko. Era berean, baldintza meteorologikoak hala eskatzen badute, proba bertan behera uztea, edo antolakuntzarekin zerikusirik ez duten inguruabarrak direla eta, ezinbestekoa bada.

Nahitaezkoa den materiala hurrengoa da:

- Dorsal ikusgaia
- Mendiko kirola praktikatzeko egokia den oinetakoa
- Likidozko ontzia (adibidez, soft flask)
- Arropa iragazgaitza (eguraldia txarra izatekotan, aurreko egunetan abisatuko da)

Gomendagarria den materiala:

- Manta termikoa
- Izen-ematean emandako zenbakia duen mugikorra bateriarekin

Irteera baino lehen parte hartzaileen dortsala eta materiala konprobatuko da. Baldintza hauek betetzen ez dituztenek ezin izango dute proban parte hartu.

Baimenduta dago lagun egiteko animaliekin parte hartzea (adibidez, txakurrak), kontuan hartuta aseguruia izan behar dutela eta indarreko arauak errespetatu behar dituztela helduta joan beharraren inguruan.

05. KATEGORIAK ETA SARIAK

Martxa herrikoia zein mendi-martxa, ez dira lehiakorrak, hortaz, ez daude kategoriak ezta sailkapenak.

Trail-etan sailkapenak generoaren arabera (gizonezkoak eta emakumezkoak) egingo dira eta kategoria bakarrean: absolutua (16 urte baino nagusiagoak), sariak lehenengo hiru gizonezkoentzat eta hiru emakumezkoentzat izanik.

Gainera, Trail 22k modalitatean, klub-en parte-hartzea egongo da. Parte hartzeko baldintza klub-aren izen ofizialarekin izena ematea da (parte hartzaile guztiek era berdinean idatzi behar dute). Taldeak gutxienez 3 kirolarik osatu behar dituzte, sailkapenean helmuga gurutzatzen duten lehenengo 3ren denborak gehituz, eta denbora gutxien egin duen taldeak sailkapen eta sari hoberena lortuz. Edizio honetan, kirolari guztiak bakarkako zein taldeko sailkapenean kontuan hartuko dira, horrela adierazten badute izen-ematean.

06. IZEN-EMATEAK

Izen-emate guztiak web orrialdearen bidez egingo dira:
<https://laboralkutxabilbaomenditrail.com>

Ezin izango da presentzialki izena eman, ezta proba egunean ere. Izen-emateen irekiera, uztailaren 7an, asteazkena, izango da, hain zuzen, goizeko 12:00etan. Eta izena emateko azken eguna martxoaren 31, astelehena, izango da, 23:59etan.

Ezarritako daten arabera, inskripzioen prezioak aldakorrak dira. Gainera, edizio honetan, aurreko edizioan parte hartu zutenek %20ko deskontua izango dute, 1. FASEAN aplikatuko dena.

	MARTXA HERRIKOIA	TRAIL 12K	MENDI MARTXA	TRAIL 22K
1.FASEA Uztailaren 30era arte	6,00€	12,00€	16,50€	20,25€
2.FASEA Uztailak 31 - Urtarrilak 20	7,00€	14,00€	18,50€	23,00€
3.FASEA Urtarrilak 21 - Martxoak 17	7,50€	16,00€	22,00€	27,00€
4.FASEA Martxoak 18 - Martxoak 31	8,00€	19,00€	27,00€	33,00€

Bestalde, taldean parte hartu nahi duten pertsonentzako prezio bereziak eskaintzen dira (10 pertsona), zenbatekoa 65€ izanik (6,5€/parte-hartzaile)

Inskripzioaren zenbatekoak eskubidea ematen du:

- Dortsala eta proban parte hartzea
- Erantzukizun zibileko eta istripuetako aseguruua
- Edizioaren kamiseta oroigarria
- Finisher oparia trail-eko modalitateetan
- Hainbat zozketatan parte hartzea
- Hornidurak: solidoa, likidoa eta post-meta.
- Arropazaindegia
- Dutzak

20

25

07. EZEZTAPENAK ETA ITZULTZEAK

Proba bertan behera geratzen bada, zenbatekoaren %100a itzuliko da.

Data aldatzen bada, arrazoia edozein dela ere, zenbatekoaren %100a itzultzeko edo hurrengo ediziorako dortsala gordetzeko aukera emango da.

Izena eman duen pertsonak parte hartu ezin badu, arrazoia justifikatuta dagoela eta inskripzioaren ezeztapena eskatu duela, hurrengo itzultzea izan dezake:

- zenbatekoaren %90a abenduaren 19ra arte, 23:59ak baino lehen.
- zenbatekoaren %50a martxoaren 17ra arte, 23:59ak baino lehen.

Titularraren aldaketa egiteko aukera dago martxoaren 31ra arte.

Horretarako, antolakuntzari komunikatu behar zaio info@bilbaomenditrail.com helbidera idatziz egoera azalduz eta beharrezko egiaztagiria atxikituz. Kasu honetan, antolakuntzak eskaeraren arrazoia ikertuko du.

Antolakuntza ez dago behartuta deskalifikatuta dagoen parte-hartzaile bati dirua itzultzera ezta konpentsazio ekonomiko bat ematera. Ezta ibilbidearen aldaketa batengatik ere.

08. DORTSALEN BANAKETA

Dortsalak eta korrikalarien poltsa jasotzeko data eta eguna hurrengoak izango dira:

- 2025eko apirilak 4, ostirala, ordutegia konfirmatzen dago
- 2025eko apirilak 5, larunbata, ordutegia konfirmatzen dago

Tokia: Konfirmatzen dago

Era berean, dortsala jasotzeko NANA edo izen-ematearen egiaztagiria aurkeztea beharrezkoa da. Beste pertsona batek, dokumentu horiek argazki edo paper bidez aurkeztuz, bilketa egin dezake.

Gorabehera bat gertatzen bada eta lasterkariren bat ez bada inskribatuta agertzen, honen alde ebatziko da, beti ere, ordainketaren egiaztagiria aurkeztuz. Proba hasi aurretik norbaitek dortsala galdu ezker, ezin izango du lasterketan parte hartu.

09. SEINALEZTAPENA

Ibilbidea behar bezala bereiztua egongo da ondo ikusten diren material konpostagarriko balizaje-zintekin eta kartel adierazleekin, behar izanez gero. Horretaz gain, korrikalari bakoitzak proba eta zirkuitua ezagutzeko ardura du. Behin proba amaituta, seinale guztiak batuko dira.

10. DENBORA-MOZKETAK

Ibilbidea egiteko gehienezko denbora hurrengoa da:

- MARTXA HERRIKOIA: 4 ordu eta 45 minutu
- TRAIL 12 K: 2 ordu eta 15 minutu
- MENDI MARTXA: 7 ordu
- TRAIL 22K: 5 ordu

Gainera, hornidura ezberdinetan, jarraian dauden denbora-mozketak egingo dira:

	MARTXA HERRIKOIA	TRAIL 12K	MENDI MARTXA	TRAIL 22K
1.HORNIDURA	4,5. km 2h (12:15)	5,1. km 1h (11:05)	5,1. km 1h 35' (9:35)	5,1. km 1h 5' (11:05)
2.HORNIDURA	7,8. km 3h 40' (13:55)	8,41. km 1h 35' (11:40)	12,04. km 3h 42' (11:42)	12,04. km 2h 28' (12:28)
3.HORNIDURA			18,77. km 6h 5' (14:05)	18,77. km 4h 5' (14:05)
HELMUGA	11,29. km 4h 45' (15:00)	12. km 2h 15' (12:15)	22,36. km 7h (15:00)	22,36. km 5h (15:00)

Parte-hartzailereren bat ez bada ezarritako denbora-tartean ailegatzen, dortsala kenduko zaio eta probatik kanpo geratuko da, ibilbidea jarraitzeko aukera emanaz edo Bilbao Arenara ailegatzeko aukerarik motzenak aurkeztuz.

Nolanahi ere, antolakuntzaren arduradunek ahalmena dute probatik parte-hartzaileak erretiratzeko hurrengo arrazoiengatik: osasun-egoera, probaren arauak urratzea, zehaztutako ibilbidea ez osatzea, araututako dortsala behar bezala ikusgai ez eramatea, antolatzaileek emandako irizpideei kasurik ez egitea, segurtasun-puntuetan arauak ez betetzea edo gainontzekoekin errespeturik gabeko jarrera izatea.

20

25

11. LASTERKETAREN KONTROLA ETA SAILKAPENAK

Denborak "dorsal-chip" sistemaren bidez hartuko dira. Ez dira baliozkoak izango Antolakuntzak banatutakoak ez diren chip-ak.

Epaileen baimenarekin, sailkapenak antolakuntzaren web orrialdean eta sare sozialetan plazaratuko dira proba amaitzerakoan. Behin betiko listak al bait lehenen izaten saiatuko da.

12. INGURUMENA

Lasterketa edertasun natural handiko bazterretan egiten da, beraz, guztion betebeharra izango da ingurunea zaintzea, hondakinak kontrolguneetatik kanpo botatzea saihestuz. Horretarako, zabor-erakundeak jarriko dira hornidura eremuetan. Parte-hartzailearen batek oinarritzko arau zibiko hori betetzen ez badu, probatik baztertuko da eta dortsala eman beharko du.

13. OSASUN-LAGUNTZA

Antolakuntzak sorospen- eta salbamendu-zerbitzuak izango ditu ibilbideko punturik estrategikoenetan. Era berean, dutxak, garbiketa eta lehen sorospenetako osasun-laguntza eskainiko dizkie aparteko beharren bat duten parte-hartzaileei.

14. ISTRUPUETAKO ERANTZUKIZUNA

Antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileei edo ikusleei, probaren aurretik, bitartean edo ondoren, gerta dakizkiekeen kalte moral edo materialen gainean. Parte-hartzaileak beren buruari eta gainontzekoei eragin dakizkiekeen kalteen erantzule izango dira.

15. LASTERKARIAREN ASEGURUA

Ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiek aseguru-poliza bat izango dute, antolakuntzak hitzartua. Poliza horrek probaren zuzeneko ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, ez, berriz, hurrengo kasuak: halabehar edo tara sorra, zuhurtziagabekeria, zabarkeria, legeak eta araudiko artikulua ez betetzea, lasterketa egiten den lekura eta tokitik egiten diren joan-etorrietan gertatutakoak, etab.

20

25

16. IRUDI-ESKUBIDEAK

LABORAL KUTXA BILBAO MENDITRAIL 2024 proban izena emateak esan nahi du erregelamendu hau onartzen dela, bai eta bere oinarritzko datuak (izen-deiturak, IFZ/AIZ/pasaportea, jaioteguna, generoa eta bizilekua) eta irudiak erakundeak erabiliko dituela, egokitzen jotzen dituen zabalkunde eta publizitaterako.

Gainera, nahitaez esan nahi du parte-hartzaileak baimena ematen diola erakundeari parte hartzeko grabazio osoa edo partziala egiteko, eta baimena ematen diola bere irudia erabil dezan probaren irudia modu guztietan (irratia, prentsa, bideoa, argazkia, DVDa, Internet, kartelak, komunikabideak, etab.) sustatzeko eta zabaltzeko, eta egoki iritzitako merkataritza- eta publizitate-ustiapenari dagozkion eskubide guztiak lagatzen ditu, inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik gabe.

Proba honetan inskribatze hutsagatik, parte-hartzaile guztiek isilbidez ematen dute baimena INNEVENTO antolatzeke, beren datu pertsonalak, berez edo hirugarren erakunde baimenduen bidez, kirolerako, sustapenerako edo merkataritzarako soilik erabil edo zabal ditzaten.

Nolanahi ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 5/1999 Lege Organikoak eta Informazioaren Gizartearen Zerbitzuei eta Merkataritza Elektronikolari buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legeak ezartzen duten bezala, interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzake.

Horretarako, legeak ezartzen duenaren arabera eskatu beharko da, idatziz, INNEVENTOren helbide sozialean (Kale Nagusia 45, 1. solairua, Bilbo). Proba honetan izena emateak esan nahi du agiri hau guztia onartzen dela, eta antolatzaileei, udalei, babesleei eta laguntzaileei ez zaiela inolako erantzukizunik emanen edozein ezbeharren aurrean.

17. BESTELAKOAK

Antolakundeak araudia honetan aurreikusten ez diren arazoak konpontzeko, jarri harremanetan hurrengo helbidearen bitartez: info@bilbaomenditrail.com

Antolatzaileek agiri hau aldatzeko eskubidea dute proba ospatu aurretik. Hala eginez gero, izena eman dutenei abisatuko zaie.

20

25